

EMF-KO IRAUPEN LUZEKO IBILALDIETAN ETA MENDI LASTERKETETAN INGURUMENARI LOTUTAKO IRIZPIDEAK

Iraupen luzeko ibilaldiak:

11. artikulua. Antolatzaileek hornidura zerbitzuak ipini ahal izango dituzte, eta parte hartzaileei horien berri emango diete. Hornidura guneak garbi utzi beharko dira, sortzen den zaborra dagokion edukiontzietan utziz, ondoren birziklatu ahal izateko (pilak, kartoia, beira, plastikoa, zabor organikoa...)

13. artikulua. Ibilaldiak balizatzeko ez da inoiz pinturarik erabiliko. Banderak edo plastikozko zintak erabiliz gero, talde antolatzaileak arduratu beharko du ibilaldia amaitu bezain pronto horiek biltzeaz. Konfitak edo txirbila kontu handiz erabiliko dira; hala ere, tamaina kontuan hartuta, bestelako ebakinak baino hobea da ingurumenerako.

Lasterketen araudian ondokoa agertzen da:

8.2 Ibilbidea

Ibilbidearen seinaleztapena:

o Lehiaketa egunaren bezperan markatu eta balizatzeko da ibilbidea, lehiaketa jokatu den ordu berean, homologatzeko xedez gainbegiraleek berau azter dezaten.

o Eguraldi-arrazoiak direla medio ibilbide alternatiboa egiten bada, lasterketa hasi baino 12 ordu lehenagotik egon beharko du markatuta eta balizatzuta.

o Ibilbide osoa banderak, zintak, geziak eta inguru horretan argi eta garbi nabarmentzen diren koloreak erabiliz seinaleztatuko da, eta, beraz, ez da beharrezkoa izango orientazio-teknikak erabiltzea ibilbideari jarraitzeko.

o Ahal izanez gero, hobe markatzeko erabiltzen diren materialak biodegradagarriak badira; markak ez dira inoiz izaera iraunkorrekoak izango.

o Ikuspen-egoera normalean, marka baten kokagunetik hurrengo biak ikusi behar dira. Eguraldia txarra denean, marka gehiago ezarriko dira, bikoitza gutxienez, lehiakideensegurtasuna ahalik eta gehien bermatzeko.

o Nahasgarriak izan daitezkeen tokietan, kontrastea egiten duten koloreetako zintak erabiliko dira, ibilbidea behar bezala adierazteko.

o Lehiaketa amaitzen denean, antolatzaileak behartuta daude seinaleztapenerako, probaren kontrola egiteko eta hornidura-guneetarako erabilitako material guztiak biltzera. Baldintza hori betetzen ez badute, diziplina-zehapena ireki ahal izango zaie, ingurumena kutsatzeagatik.

o 5 kilometroko tarte bakoitzeko, kilometroen adierazgarri bat erabiliko da, balizen marken kolore desberdinekoa, eta kilometroen zifra ondo definituta agertuko da